

GOAZEN BIRZIKLATZERA

1.- Deskribapena

Ariketa praktiko batzuen bidez birziklatzea zer den ikastea datza.

2.- Helburuak

- Birziklatzeak eta zaborra bereizteak duen garrantziaz jabetzea.
- Ingurumenaren osasuna gure esku dagoela konturatzea.
- Ingurumena babestea eta bere baliabideak sustatzea giza garapena lortzeko.
- Naturarekiko errespetua eta ekologiarekiko zaletasuna garatzea.

3.- Partaideak

8 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Kartoizko kaxak eta margoak.

Eranskina.

6.- Garapena

Hitz lañoak erabiliz, hurrei birziklatzea zer den erakutsiko diegu: birziklatzeak duen garrantzia, eta birzikla daitezkeen gauzak zeintzuk diren (kartoia, papera, beira, ontziak, etab. Ikus dokumentazio osagarria). Kasu bakoitzerako zein edukiontzi erabili behar den azalduko diegu, koloreak materialekin erlazionatuz (adibidez, papera edukiontzi urdinerara botatzen da). Horrez gain, zaborra bereizteko ontziak egingo ditugu, hurrek etxean erabil ditzaten.

Azkenik, hainbat produktu eta material irudikatzen dituzten fitxa batzuk emango dizkiegu. Fitxetan azaltzen diren gauzak dagokien edukiontzira bota beharko dituzte.

7.- Ebaluazioa

Hurrek ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidearen eta ingurumena babesteko eta errespetatzeko betebeharraren artean lotura estu bat dagoela ulertu behar dute. Galdera hauek egin ditzakegu: Jolasa dibertigarria izan al da? Nola sentitu zarete jolasa egiterakoan?

8.- Iturria

ALBOAN. Munduko Hiritarrok. Eskubideak eta betebeharrak. Lehen Hezkuntza.

ERANSKINA





